

MIGRAZIOAK, ERRESISTENTZIA FEMINISTA ETA LURRALDEAREN DEFENTSA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Defendatzaileak	5
Topaketa eta hausnarketa espazioak	8
Lurraldearen Defentsa	10
Erresistentzia feminista	15
Migrazioa eskubide gisa	19
Irrati komunitarioak borroka tresna gisa	24
Zainketak, sendatzeak eta artea	28



SARRERA

Irailaren 21etik 30era, Lumaltik Herriak eta Jóvenes y Desarrollo erakundeek ibilbide bat burutu genuen Euskal Herriko hainbat udalerrri, unibertsitate eta irratitan zehar.

Erdialdeko Amerikako defendatzaileen eta tokiko aktibistekin batera, migrazio prozesu, feminismoetatik egiten ari garen erresistentziaz eta lurraldearen defentsaren garrantziaz hausnartzeko aukera izan genuen.

Jardunaldi hauetan emakume migratuen eta herri indigenen eskubideen aldeko defendatzaileak eta aktibistak izan genituen gurekin. Euren borrokekin erresistentzia prozesuak indartzen eta sustatzen dituzten emakumeak dira.

Gure lurraldean mantentzen den indarkeria-giroa partekatze eta salatze helburuarekin bildu ginen, gure herrialdeetako gobernuek azken boladan hartutako jarrera diktatoriala, eta behartutako lekualdatzeen kausak eta ondorioak aztertze.

Era berean, gure bizipen eta esperientzietatik abiatuta, gogoeta sakona bideratu genuen migratutako emakumeei laguntzaren inguruan eta landa-komunitateen migrazioekin lan egiteari buruz, eta baita komunikabide alternatiboek migratzeko eskubidearen aldeko diskurtsoa sortzeko duten zereginaren inguruan ere.

Erdialdeko Amerika ez da eskualde batere pobrea, izan ere, gure harreman asko eta asko gizatasun eta komunitario zentzudunak dira guztiz, dantza eta

alaitasuna erresistentzia bide gisa erabiltzen ditugun lurraldeak gara. Hala ere, indarkeria eta pobretze testuinguru horiek, aukera edota alternatiba falta horiek, dira migrazioa behartzen dutenak.

Gure ondasun komunen suntsitze praktika kolonialista horiek indarrean mantentzen dira gaur egun ere, besteak beste, enpresa transnazionalen erauzketa proiektuen bidez; eta behartutako migrazioen funtsezko aktore bilakatu dira.

Enpresa horietako asko Europako eta Ipar Amerikako hiriburukoak dira: suediarak, estatubatuarak, kanadarrak, espainiarak eta baita euskaldunak ere. Kolonizazioaren, estraktibismoaren eta migrazioaren arteko kausa-efektu erlazio horiek aztertzen ditugu.

Pandemiak agerian utzi du guztiz beharrezkoa dugula bizi garen lurraldea babesteko duten ekintzak burutzea, ekosistematik hasita eta geure gorputzetaraino, eta gaixotu eta gorrotoz betetzen gaituen sistema kapitalista eta neoliberal hau elikatzeari uztea.

Emakumeontzat, lurraldearen defendatzeak ahalduntze eta jatorrizko aktibismo zorrotzago eta hierarkikoagoak hausteko aukera suposatzen du, baina baita arrisku, neke eta min esperientziak ere.

Lurraldea suntsitzeak, maite ditugun pertsonak galtzeak, eguneroko jazarpenak, mehatxuek edo hiltzeko ahaleginek kuantifikatzen zailak diren inpaktu psikologiko lazarriak eragiten dituzte.

Ildo horretan, ikusarazteko eta laguntzeko aliantzak eta estrategiak sortzea funtsezkoak ditugu.

Emakumeek luraren defentsan eta pertsonen eskubideen defentsan duten protagonismoa berreskuratzea eta nabarmentzea oso garrantzitsua da.

Txosten honekin ahotsa altxatu, salatu, aliantzak sortu eta hitza aldarrikatzen dugu.



DEFENDATZAILEAK:

Lourdes Pablo:

Guatemalako Giza Eskubideen defendatzailea eta feminista, ekosistema oso baten parte diren gizabanako bakoitzak duen indarrean sinesten duena.

Euren familiak, komunitateak, gorputzak eta izpirituak defendatzen dituzten emakumeak miresten ditu. Ingurumen ingeniaria, unibertsitateko irakaslea eta Tzuk kim Pop mugimenduaren parte.



Angélica Cárcamo:

El Salvadorreko kazetaria. Berriemaile lanetan aritu da Reuters albiste agentzian, Contrapunto egunkari digitalean eta La Llave irratian. 2012tik ARPASen (Asociación de Radiodifusión Participativa de El Salvador) zuzendaritza exekutiboan lan egiten du. Herri Komunikazioaren Elkarte Latinoamerikarraren (ALER) migrazio eta komunikazio sareko kide da, migrazioaren fenomenoaren giza eskubideen ikuspegitik landuz.



Cony Carranza Castro:

El Salvadortarra, herri hezitzaile feminista eta antiarrazista. Metodologia emantzipatzaileetan aditua, esperientzia handikoa etxeetan eta zaintza lanetan aritzen diren emakumeak laguntzen, eta Ahalduzko Eskoletan emakume migratu eta bertoko taldeekin lanean ibilbide luzea du.



Mugimendu feministako kide, Mujeres del Mundo Babel eta Garaipen Kolektibo Feministako kide ere.

Lucía Ixchíu:

K'iché herri indigenako kidea, feminista komunitarioa, arkitekto eta diseinatzailea, lurraldearen eta giza eskubideen defendatzailea, artista, kantaria, kultura kudeatzailea eta komunitate kazetaria.

Ikasleen ordezkaria, irrati kazetaria eta Maya K'at albistegi indigenaren parte, Jun Náaoj Komunikatzaile Indigena Sareko kolaboratzailea, Mujeres en Movimiento emakume indigenen eta mestizoen espazio feministaren sortzaileetako bat eta Festivals Solidarios jaialdiaren sortzailea.

Marixela Ramos:

Emakume nekazaria, El Salvadorrek pairatu zuen 12 urteko gerra zibilaren ondorioz errefuxiatuen kanpamentu batean jaioa. Radio Victoriako kazetaria eta zuzendaritza taldeko koordinatzailea.

Komunikatzaile komunitarioa, feminista, lurraldearen eta komunikaziorako eskubidearen defendatzailetzat aitortzen du bere burua.

Topaketa batzuetan, lurraldeko beste defendatzaile batzuek ere lagundu ziguten: Euskal Herrira migratu zuten herri indigenetako emakumeak, erbestean zeuden aktibistak eta defendatzaileak, komunitate komunikatzaileak etab. Beren gogoeta eta hausnarketekin prozesua asko aberastu zuten.



Dalila Argueta:

Lurraldearen defendatzaile hondurastarra, Guapinol erresistentzian dagoen komunitatekoa, hain zuzen. Defendatzaile gisa definitzen du bere burua, eskubide naturalak edo pertsonen eskubideak defendatzen dituen pertsona oro defendatzaile garelako; eta aktibismoa edonon, erbestean zein bere lurraldean, daraman pertsona batek beste borroka batzuk babesten ere jarraitzen duelako. Lurraldearen eta gure gorputzen defentsa, sexu eta ugalketa eskubideak eta LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideen defentsa dira bere aldarrikapen nagusiak.



Isabel Hernández:

K'iché herri maiako landa eremuko emakumea, ingurumen gaietan aditua. Ahalduntzeko, adosteko eta elikadura subiranotasunarekin lotutako prozesuak ezartzeko prestakuntzan lanean aritu da maia q'eqchi' herriarekin batera. Bere migrazio prozesuaren ondorioz, gaur egun, Euskal Herrian migratutako Guatemalako emakumeen elkarte kolektiboan parte hartzen du.



Amanda Verrone:

Zuzenbidean lizentziatua, nekazaritza ingurumeneko zuzenbidean eta giza eskubideen teoria kritikoan aditua. Gaur egun, Giza Eskubide, Kulturartekotasuna eta Garapen master bat burutzen ari da Pablo de Olavide Unibertsitatean (Sevilla), lurraldearen kontrol heteropatriarkala eta Brasilen emakumeek lurra ez izatearen gaineko ikerketa proiektu batekin. Aktibista lesbofeminista eta Mujeres del Mundo Babel eta Basoa Defendatzaileen Etxeko kide da.



TOPAKETA ETA HAUSNARKETA ESPAZIOAK

8 topagune egin ziren EAEko hainbat herri eta hiritan. Topaketak formatua parte hartu zuten espazioen, erakundeen edo kolektiboen antolamenduaren arabera egin ziren.

Udalerriak:

Donostia: "Lurraldearen defendatzaileak: Abya Yalatic erresistentzian" jardunaldiaren baitan egindako hitzaldiak, irailaren 22an Okendo Kultur Etxean.

Deba: DIT Feministarekin batera (Debatziarkeko Talde Feminista) antolatutako topaketa, irailaren 23an Agirre Jauregiko Ispiluen Aretoan.


Ondarroa: Dokumental emanaldia eta solasaldia gaztetxeko gazteekin, irailaren 24an.

Artea: Herri bazkaria eta topaketa komunitarioa, Basoa Defendatzaileen Etxearekin batera antolatuta Artean, irailaren 25ean.

Bilbo: Gosari komunitarioa eta bertoko eta kanpoen arteko topaketa Bilboko Ekoetxean, Mujeres del Mundo Babel kolektiboarekin batera irailaren 26an antolatua.

Santurtzi: Emakumeen arteko topaketa, Alma & Lutzia elkartearekin batera, irailaren 27an.

Mutriku: Mahai-ingurua Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin, Mutrikuko Udaleko Immigrazio Sailarekin batera antolatua, irailaren 28an Zabel Kultur Etxean.



Gasteiz: “Defensoras: la historia que no te cuentan” film laburraren proiektzioa eta solasaldia irailaren 30ean Zapateneoan.

Unibertsitateak

Unibertsitate irakasle eta ikasleen arteko topaketak.

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea. Irakasgaia: genero ikuspegia gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzean, gizarte hezkuntzako graduaren baitan.

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, UPV/EHU Donostia. Ikasgaia: antropologia politikoa, Gizarte Antropologiako Graduaren baitan.

Lan Harremanen eta Gizarte Langintzaren Fakultatea, UPV/EHU Gasteiz. Ikasgaia: gizarte errealitateen behatokia, Gizarte Langintzako Graduaren baitan.

Irratiak

97 Irratia Bilboko irrati librea da, eta 2013ko udaz geroztik 97.0 FM frekuentzia historikoa hartu du, komunikazio proiektu independente baten sorrera bultzatzeko; emisioa ahalbidetzen duten 90 pertsona eta kolektibo baino gehiagoren laguntza eta lankidetzat du.

Hala **Bedi 1983ko** abuztuan herri mugimenduaren ekimenez sortutako irrati libre bat da, helburu argi batekin: ez zutenei ahotsa ematea, komunikatzeko modu desberdin baten alde lan eginez. Autogestioa, batzarraren funtzionamendua, kulturartekotasuna eta aniztasuna balioztat hartzea dira hurbileko eta partaidetzazko komunikazio proiektu honen oinarriak.

Herri **Irratia 1960an** sortutako irrati jeneralista da, Bizkaiko lurralde historiko osoari zuzendua. Jarraian, Erdialdeko Amerikako defendatzaileen bisitan partekatatu ziren zenbait gogoeta aurkeztuko ditugu.



LURRALDEAREN DEFENTSA



1. Lurraldea defendatzea

Lurraldea defendatzea lurralde bat, espazio bat, lursail bat defendatze hutsetik haratago doan kontzeptu bat da. Emakume horiek lurraldearen defentsaz hitz egiten dutenean hitzaldi batean, jatorri baten, kultura baten, eskubide batzuen eta, batez ere, gorputz baten defentsaz hitz egiten ari dira.

Europako eta beste kontinente batzuetako eskualde gehienetan, bizi garen baina parte ez garen lur baten ikuspegiarekin hazi gara; lur horretan lan egin, suntsitu eta okupatu dezakegu, baina ez da gure bizitzaren parte.

Bestalde, Erdialdeko Amerikako herri indigenetan, munduko beste hainbat lekuetan bezala, pertsona lurrari lotuta dago eta, beraz, horren parte ere sentitzen da.

Maia herriaren mundu ikuskerak gizabanakoa kolektibo baten parte gisa antzematen du, kosmosaren parte da eta egiten dugun guztia beste batzuei zuzenean eragiten diela planteatzen du. Ikuspegi horren ondorioz, lurraldearen eta gure erroen aldeko borroka giza eskubideen aldeko borrokari guztiz lotuta dago.

Jarduera horietan, lurraldearen defentsarekin lotutako hainbat borroka bateratu dira, eta haien testigantzen bidez ezagutuko ditugu.

Donostiako nazioarteko jardunaldiak





“Guatemalan ez dago benetako biztanleriaren ordezkartzarik botere postuetan, ez indigenengatik, ez emakumeentik, nahiz eta gaur egun herritarren gehiengoa izan”.

Lourdes Pablo

Lourdes Pablo, Guatemalako ingurumen ingeniaria, emakume eta gazteak bizi diren herrialdeak nola funtzionatzen duten irakasten laguntzen du.

Maila globalean eta indibidualean eragiten duen sistema kapitalista baten aurka borrokatzeko espazioak bilatzen ditu haiekin batera, kontsumitzen dituzten produktuak nondik datozen ulertzeko, tokiko merkataritzaren alde egiteko eta globalizazioaren benetako helburua zein den ulertzen saiatzeko.

Guatemalan, esate baterako, boterea familia gutxiren eskuetan dago, eta familia horiek dira herrialdearen lurrak eta aberastasunak kontrolatzen dituztenak (lurren %60 - %70 a familia horien esku daude).

Lourdesek beste pertsona askorekin batera egindako lana erroen, hizkuntzaren, kulturaren eta abarren kontzientziazioarekin eta ezagutzarekin lotuta dago. Gure jatorriak ezagutzeak aberastu egiten gaitu eta eskubideen alde borrokatzearen garrantziaz jabetzen gaitu.

Eskubide horiek urratu egiten dira; are gehiago, bazterketa politikak ere ematen dira, gutxiengoa den kolektibo baten parte izateagatik edota hizkuntza gutxituen hiztuna izateagatik, honen adibide garbi dira herri indigenak.

Gutxiengoz ari gara sarritan, baina kontuan izan behar dugu Guatemalan 500 urte baino gehiago iraun duten 22 herri indigena baino gehiago daudela, eta jazarpena, errepresioa, sarraskiak eta kultura ezabatzeko ahaleginak izan direla urte askotan zehar, baina maia herriak hizkuntza eta sustraiak gorde ditu.

Lucia Ixchíu Guatemalako emakume indigenak, ikuspegi historiko batetik herri indigenen borrokak, galerak eta aurrerapenak zeintzuk izan diren aurkeztu zizkigun.

Bere burua feminista komunitariotzat, aktibistatzat, herrien eskubideen aldeko aktibistatzat eta, batez ere, bidegabekeria sozialen aurkako defendatzailetzat aldarrikatzen du.

2012an, 48 Cantones erakunde indigenako kide izan zen, izugarriko sarraskia jasan zuena bere lurak kaltetzen ari zen enpresa baten aurka manifestatzeagatik. 7 pertsona hil eta beste 40 zauritu ziren.

Une horretan bertan konturatu zen borrokak duen garrantziaz eta lurraldearen defentsaren aldeko protestaz, hamaika aldiz urratua izan dena gutxi batzuen diruagatik, botereagatik eta ongiagatik.

Antzeman ahal izan dugu herri indigenen borrokaren bidez, batzuetan, egoera onuragarriagoak lortu direla. 1944ko iraultzaren kasuan bezala: lan eskubide duinen alde borrokatu zen, industria nazionala sortu zen, nekazaritza erreforma berria egin zen, enpresa kolonialistak

kanporatu ziren industria nazionalizatu... baina 1944 eta 1954 arteko urte horiek ameskeria baino gehiago ez zirela izan onartzen du Luciak.

Gaur egungo globalizazioarekin, interes ekonomikoekin, herrialdeak igaro dituen diktadura prozesuekin, Guatemala mundu osoko herrialde pobre eta arriskutsuenetako bat bilakatu dela esan daiteke.

Guatemala herrialde desorekatutzat, matxistatzat, patriarkaltzat, mesfidatitzat eta gizarte ehundurarik gabekotzat jotzen du.

Borroka eta aldarrikapen horien beste adibide garbi bat Marixela Ramosena izan zen. Emakume salvadortarra lurraldearen defentsarekin konprometituta zegoen, eta Kanadako kapitala zuen enpresa batek Ozeano Barean hasitako meatze prozesu baten aurka borrokatu zen.

Zapateneo Gasteiz



Merkataritza Libreko Itunaren bidez, enpresak esplorazio prozesu bat hasi zuen El Salvadorren ezartzeko eta lurrari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, estortsioa eginez eta bertan bizi direnen lurak prezio oso baxuetan erosiz. Enpresa horren aurkako borrokak guztiz erlazionatuta zegoen bertan bizi direnen baloreen eta eskubideen defentsarekin eta, azkenena, proiektua bertan behera gelditzea lortu zen.

Hala ere, Amanda Verronek, Via Campesinarekin lan egin duen aktibista lesbofeministak, gure tokian-tokiko erantzukizunen inguruko hausnarketa bat egitera gonbidatu zituen unibertsitateko gazteak.

“Hemendik bertatik asko dugu hausnartzeke, gure landa unibertsoari buruz, gure lurraldeari buruz, pertsonen mugimenduei buruz. Gure mendiak, gure urak, gure ondasun naturalak, hemen jaten ditugun elikagaiak lantzeko herri gisa dugun gaitasuna...horiek beste latitude batzuetan emakumeen lanaren super-esplotaziorik eragin gabe. Gure nekazaritzako elikagaien ereduak Euskal Herrian duen ingurumen inpaktuan pentsatu behar dugu”. Amanda Verrone

Hau da, lurraldea defendatzeko erantzukizuna ez da soilik beren ahots eta borrokekin laguntzen diguten kideena, hemendik gure lurraldea ere defendatu behar dugu eta beste lurralde eta gorputz batzuen erresistentzia-prozesuetan lagundu.



UPV/EHU Donostia



Deustuko Unibertsitatea



UPV/EHU Gasteiz

ERRESISTENTZIA FEMINISTA



2. Erresistentzia Feminista

Adiskidetasun sareak, emakumeen arteko sororitatea, kolektiboen arteko errespetua eta diskriminazio eza, gorputzak naturarekin duen lotura eta borroka partekatua izan ziren jarduera horietan jorratu ziren gaietako batzuk. Isabel Hernández, Mujeres Tejiendo Red elkartearen kidea, laguntza eta bizikidetzaren sareak ehuntzearen garrantziaz mintzatu zen.

Janariaren eta zapoaren arteko topaketaren bidez, borroka hitz egin daiteke, emakume migratuen eskubideez, beste espazio batzuk eta beste errealitate batzuk ezagutu, migrazioak emakumeengan eragiten dituen lan-baldintza prekarioak ezagutu eta arazoak zeintzuk diren aztertu. Migrazioak komunitatea sortzea ere ahalbidetu dezake.

Zenbait emakume norbait ezagututa, senide edo lagun bat, migratzen dute; baina askori euren kabuz eta bakarrik bidaia egitea tokatzen zaie, inolako afektu-saririk gabe, eta horrek askoz zailago egiten du haien migrazio prozesua.

Kapitalismoaren lorpenik handiena indibidualismoa da. Isabel Hernández.

Donostiako nazioarteko jardunaldiak



Mujeres del Mundo Babel hainbat jatorritako emakumeen arteko topagune bat da, 1999. urteaz geroztik antolatua. Emakume feministaz eta kulturen aniztasunarekin aberasten diren internazionalistez osatua eta, haien dioten bezala, jakintzak eta besarkadak elkarbanatzeko espazioa da.

Emakumeak taldeka batzen eta antolatzen dira, eta hori lorpen oso garrantzitsua da, izan ere, kapitalismoak bakartuta nahi gaituelako, patriarkatuak banatuta nahi gaituelako. Mujeres del Mundo Babel-ek aukera eman die beren jatorrizko herrialdeetan lan-prozesu kolektiboetatik datozen emakume askori militatzen jarraitzeko eta espazio bat izateko, eta hori oso garrantzitsua da migratutako edo erbesteratutako aktibistentzat. Izan ere, defendatzaileek dioten bezala, haien bihotza borrokan mantentzen dute nahiz eta etxetik urrun egon.

Mujeres del Mundo Babel-ekin topaketa Bilbon



Euskal Herriko mugimendu feministaren barruan badira emakume konprometituak, beste emakume batzuen erresistentzia prozesuak babesten dituzten emakumeak, errespetutik, maitasunetik eta zaintzatik abiatuta.

Horregatik, aliantzak garrantzitsuak dira, emakume migratuei beren autonomiatik antolatzen uztea, topagune mistoak partekatzea hala eskatzen dutenean, haien lan erritmoak eta moduak errespetatzea, inposiziorik eta autoritarismorik gabe.

Hemen sinergiak partekatzen ditugu arrazismoaren aurkako kolektiboekin, etxeko langile diren emakume migratuekin, erbesteratutako defendatzaileekin eta migratutako aktibistekin.

Feminismotik bertatik erantzukizuna eskatzen dugu: feminista zuri pribilegiatu gisa, beste emakume batzuen egoeraren aurrean.

“Heteropatriarkatuaren, arrazakeriaren eta kapitalismoaren arteko loturak emakumeen bizitza eta gorputzak bortxatzen ditu eta, batez ere, zaintza lanetan diharduten duten emakumeena.”
Cony Carranza Castro



Interpelaziorako garaiak dira, baita Elizaren, gobernuen, ultraeskuinaren, militarren eta enpresa transnazionalen arteko aliantza patriarkalena urkaindarrak batzeko ere. Horregatik, garrantzia emakumeen borroketatik (feministak izan ala ez), lider komunitarioetatik eta komunikabide alternatiboetatik egiten ari diren ekarpenetan dago.

Oso garrantzitsua da, beraz, emakume indigenen, mestizoen, afroen, migratuen, arrazializatuen eta LGTBIQ+ pertsonen erresistentzietatik eraten ari dena.

Hainbat urtetatik isilaraziak eta ikusezinak izan diren begiradak eta borrokak. Bizitza sareak ehundu eta komunitate osoak eusteko gai direnak, alegia.

Santurtziko topaketa / Alma & Lutzia elkarte



Erdialdeko Amerikako herrialdeetako indarkeriek ondorio sozialez gain, pertsonalak ere badituzte: eragin zuzena dute gorputzetan. Aktibistek eta defendatzaileek ondo dakite hori.

Etenik gabeko borroka da, baita kide diren kolektiboen bertan ere. Izan ere, matxismoa, arrazakeria eta patriarkatua botere-harremanetan eta emakumeen lan ikusezin horretan errotuta daude, eta gizarte mugimenduak ez dira gaitz horretatik libratzen.

Premiazkoa da ardura horiek sororitatetik lantzea, emakumeen artean aliatzea, kolektibitatetik eraikitzea. Garrantzitsua da emakumeen arteko konplizitate hori ehuntzea, alaitasunetik, artetik eta gozamenetik borrokatu ahal izateko.



DIT Feministarekin Topaketa, Deba



MIGRAZIOA ESKUBIDE GISA

3. Migrazioa eskubide gisa

Migrazioa, jada mespretxuzko irain bilakatu den kutsatutako kontzeptu hori, balio izan die bizitza hobea baten bila etxea utzi behar izan duten askori eta, zenbait kasutan, lortu izan dutenak.

Mikel Laboaren “Sustraiak han dituenak” abestiak dioen antzera: «Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak; ez bada abaildu eta oholetan» eta errealitate hori bera da defendatzaileek gurera ekarri digutena.



Solasaldia Mutrikun

Angélica Cárcamo emakume salvadortarrak, lanbidez kazetaria, mahai gainean jartzen dizkigu bere herrialdeko pertsonen migrazioa dituzten hainbat arrazoi. Bere esperientziatik hitz egiten du. Angelicak aukera gehiago izateko migratu behar izan zuen; izan ere, bera bizi zen landa eremuan, emakume gazte gisa zituen irtenbide bakarrak honako hauek ziren: ama oso gaztea izatea, beste herrialde batera modu irregularrean migratzea edo mara (gaizkile-talde) baten parte izatea.

Gaur egun, El Salvadorrek 3 milioi pertsona baino gehiago ditu bere herrialdetik kanpo bizitzen, hauetako gehienak Amerikako Estatu Batuetan daude. Baina egoera hori ez da batere berria. Lehen, pertsonak gatazka armatuaren ondorioz migratzen zuten, baina orain badira beste arrazoi batzuk pertsonak beste herrialde batzuetara joan behar izateko bizimodu hobea baten bila.

Migrazioaren kontzeptua ikuspegi negatibo, kritiko eta aprobetxatuaz tindatuta dago gaur egun. Pentsaera hori oso errotuta dago pertsona askoren baitan, eta ez du kontuan hartzen beren herrialdea, familia eta jatorria atzean uzten duten pertsonen hainbat zailtasun izaten dituztela migrazioa unean.

Izan ere, abentura edo bidaiak idiliko batetik oso urrun daude. Bidaiaren helburua hurbileko herrialde batera heltzea bada, Hondurasera edo Guatemalara adibidez, han bizi den norbait ezagutzen dutelako, lan aukerak call center, janari azkarreko dendak edo lantegiak izaten dira.

Baina pertsona gehienek aukera berriak bilatzen dituzte, ia esklabo eta baldintza txarretan lan egin arren diru gehiago irabazi ahal izango dutela dakiten lekuetan. Leku hori Amerikako Estatu Batuak dira. Eta hor hasten da pertsonak herrialde batetik bestera mugitzearen negozioa.

*“Ni hirikoa naiz, eta bertan gaizkile-taldeak dira nagusi. Nerabezaroan emigratu behar izan nuen nire bizitza eta ikasketak kalitatea hobetzeko, inguruko gazte gehienok oso aukera gutxi baikenituen.”
Angelica Cárcamo*

Orain urte batzuk oso ohikoa zen Erdialdeko Amerika zeharkatzen zuen tren bat erabiltzea Mexikora iristeko, La Bestia ezizenaz ezagutzen zena. Tren horretan, bere herria utzi behar izaten zutenek sabaiak erabiltzen zituzten bidaiatzeko. Bidai oso garestia zen, eta ez diruagatik, baizik eta han bizi ziren eta oraindik bizi diren gehiegikeriengatik.

Lourdes Pablok bizitza hobea izaten saiatu diren pertsona askok jasan dituzten bortxaketez, istripuez eta heriotzez hitz egin zigun.

Tren horretan bortxatua izatea hain normalizatuta zegoen, ezen bidaia hori egitera zihoazen emakume asko familia-plangintzara joaten zirela aldeaz aurretik antisorgailuak eskatzera, bortxatuak izango zirela bazekitelako eta haurdun geratzea saihestu nahi zutelako.

Geroago, negozio horren baitan ere, coyote-en figura agertu zen, 8.000-10.000 dolarren truke jatorrizko herrialdetik Amerikako Estatu Batuetara eramaten zintuzten pertsonak. Prezio hori, amaiera edozein izanda ere, ordaindu egin behar da. Beraz, migratzailea bidean hiltzen bada, zor hori jatorrizko familiak ordaindu behar du.

Bidaia, seguruago eta iristeko aukera gehiagorekin bada ere, indarkeriaz, gehiegikeriaz, organoen trafikoz, adingabeen bahiketaz (mugan ematen zaien tratu ona dela eta), pertsonen salerosketaz eta abarrez markatuta dago beti.

Ikusi dugunez, migrazioaz hitz egiten ari garenean, gehienetan etsipenaz, azken aukerez, galeraz, heriotzaz, arriskuaz eta, batez ere, gertatuko denarekiko beldurraz hitz egiten ari gara.

“Migrazioa da emakumeek haien jatorrizko herrialdetan espero zaienari ihes egiteko aurkitzen duten bide bakarra: ama gazteak izatea.”

Lourdes Pablo

Cony Carranza Castro migrazioaren beste aldearen lekuko da, Europara eta Euskal Herrira iristen diren emakumeek egindako lanaren lekuko: zaintzaile, etxeko langile, erizain edota laguntzaile gisa aritzen diren emakumeak.



Izan ere, haiek ordezkatzeko dituzte bertako pertsona askok gauzatu ezin ditugun, nahi ez ditugun edo gauzatzen ez dakizkigun behar horiek guztiak. Emakume horiek, Conyk dioen bezala, “bizitzaren euskarri dira”.

Etxeko langileen esparrua sakonki aztertzen dugunean, barneko gisa lan egiten duten pertsonen % 98,6 migratuak direla antzematen dugu. Hauek, desabantaila nagusi bati egin behar diote aurre: beharra.

Premia horren ondorioz, horietako askok oso egoera eta lan-baldintza eskasak onartzen dituzte, beren eskubideei ez dagozkienak: prestasun osoa, hasieratik ezarri gabeko zereginak, denbora libre eza, lan-baldintza kaskarrak, baita legez kontrakoak ere zenbait kasutan...

Askotan, emakumeek eskuak lotuta izaten dituzte, zorrak ordaindu behar dituztelako, jatorrizko herrialdean familia bat mantentzeko, horretarako baliabiderik ez duten pertsonen gastu medikoak ordaintzeko..


Egoera horiek, Atzerritartasun Legearekin batera, modu latzean diskriminatzen ditu eta emakume horiek etengabeko larritasun eta ziurgabetasunaren biktima bihurtzen ditu eta, duten behar horren ondorioz, duinak ez diren lan-baldintzak onartzera bultzatzen ditu.

Cony, salvadortar herri-hezitzaile feminista eta duela 17 urte baino gehiago Euskal Herrian bizi dena, gorputzaren, zainketen eta lurraldearen defendatzailea da.

Kontzientziazio, prestakuntza, laguntza eta sostengu lana egiten du emakume migratuekin. Zaintza lan horiek egitera datozen emakumeak merezi duten errespetuarekin eta duintasunarekin tratatuak izan daitezzen protokolo edo jarrera ideal bat bilatzen saiatzen da, pairatu izan duten arrazakeria gordin hori alde batera utzi dezaten behingoz.

Behartutako migrazioen beste kasu batzuk erbesteratutako defendatzaileek eta aktibistek bizi dituztenak dira, beren bizitza babesteko beste herrialde batzuetara ihes egitera behartuta daudenak. Multinazionalen aurka borrokatu diren emakumeak dira, lurraren, bizitzaren, ekosistemaren eta lurraldearen defentsarekin lotutako lider komunitarioak orokorrean.

Erbestean bizirauten ikasten da, lehen nor zinen izateari utzi behar diozu. Familiak jan egin behar dute eta emakume migratuek lortzen duten lan mota zaintzaren edo etxeko lanarena da soilik. Horregatik, erbesteratutako defendatzaileentzat, militantzia uzteak (nahiz eta batzuetan osasuntsua izan) norberaren izatearen heriotza geldoa ere dakar askotan.



“Besteak zaintzea bizitzaren ardatzean dagoela pentsatzeko ilusioa izan dugu (...)

Gure bizitza uzten dugu zaintzen ditugun pertsonen bizitzaren inguruan izateko”.

Cony Carranza

Dalila Argueta hondurastarra jarduera hauetan parte hartu zuen beste defendatzaile bat da, Hondurasko Giza Eskubideen Defendatzaileen Sareko kidea, Guapinol komunitatean izandako esperientzia partekatu zuena.

Euskal Herrian errefuxiatuta bizi da bera eta pertsona asko migratzera eta, bere kasuaren antzera, erbestera eramaten dituzten egoerak ere kritikatu zituen. Erdialdeko Amerikako eskualdearen pobretzearen ondorioz, pertsonak migratzera behartuta daude kasu askotan eta hori lortzen dutenek, esklabotza lanaren bidez herrialde aberatsak eustera behartuta daude.

“Nire herria zapaldu egiten dute gure ibaia defendatzeagatik, meatzaritza-industriak kutsa ez dezan”.
Dalila Argueta


Migratuei eta erbesteratuei laguntzeko sareak funtsezkoak dira. Dalilak kontatu zuenez, kolektibo batek bere baitan hartu zuen hona iristean, Madrilgo Hondurasko Emakume Migratuen Sarea, eta geroago Euskal Herrira heldu eta Arteako Basoa Sarean sartu zen.

Bere borroka aldatu egin dela azaldu zigun, eta tokiko beste indar batzuegandik ikastea egokitu zaiola, laguntza sareak ehuntzen ari dela eta horrek borroka-espirtua piztuta mantentzen laguntzen diola.

Topaketa komunitarioa Basoan, Artea

“Gure borroka erantzukizunez partekatu behar dira, Ipar Globaleko biztanle gisa ditugun pribilegioak zalantzan jarri”.
Dalila Argueta





IRRATI KOMUNITARIOAK BORROKARAKO TRESNA GISA

4. Irrati komunitarioak Borrokarako tresna gisa

Jardunaldi hauetan denon ahotan izan den gaietako bat herri komunikabideen garrantziarena izan da: injustiziaren aurkako, lurraren desjabetzearen aurkako, ezagutzaren aldeko, giza eskubideak baliatzearen aldeko eta lurraldearen defentsaren aldeko eguneroko borrokan duten ezinbesteko garrantzia.

Parte hartu duten emakume guztiek nabarmendu dute hitzak duen garrantzia eta batez ere sareak ehuntzeko duen indarrak, borroka ez baita indibiduala. Indarrak ugaritu egiten dira kolektibitatea dagoenean, eta defendatzaileen esperientziatik, irrati komunitarioak indarrak batzeko eta modu bateratuan borrokatzeko tresna izan dira.

Angelica Cárcamo, El Salvadorreko kazetaria, 80ko hamarkadaren amaieran Santa Anan jaio ziren irrati komunitarioetan hasi zen lanean. Ondoren, migratu behar izan zuenean, hiriburuan jarraitu zuen bere lana, ARPASeko (Asociación de Radiodifusión Participativa) koordinatzaile nagusi izatera iritsiz.



Angelikak irratiak bere herrialdean duen papera azaldu eta aldarrikatzen du. Irratien eta telebista kateen % 95 baino gehiago sektore pribatuaren eskuetan dago. Horrek esan nahi du elite boteretsuek zuzentzen dituztela informazio motak eta, batez ere, ezagutu nahi ez dena kontrolatzen dutela, engainatzeko eta desitxuratzeko helburuarekin.

Angelikak herri Komunikazio Eskolan egiten du lan egiten herrialdearen, ekonomiaren eta boterearen inguruko ezagutzaren garrantzia transmititzeko, eta medioak gutxi batzuen eskuetan izatearen arriskuaz ikasleak ohartarazteko. Ezagutza horrek kontzientzia kritikoa sortzen du eta borrokan aurrera egiteko aukera ematen du.

Bere herrialdean gehien jorratzen duen gaietako bat migrazioen arrazoen kontzientzia eta ezagutza da. Herri komunikabideek migrazio ibilbideen arriskuei buruzko informazioa ematen dute eta, era berean, El Salvadorrera iristen diren pertsona migratuekiko diskriminazioaren kontrako kontzientzia kritikoa sortzen saiatzen dira.

Beraz, Angelikak emakumeen eta gazteen arteko harremanak sendotzeko bidean lan egiten du, hobeto antolatzeko, enplegua sortzeko, tokiko produktuak kontsumitzeko, herrialdeko ekonomia indartzeko, kapitalismoaren aurka borrokatzeko, harremanak estutzeko indibidualismoa baztertuz... Laburbilduz, gizarte egitura indartzea, herrialdean bertan aukerarik ez dagoelako behartutako migrazioa eman ez dadin.

Komunikabideen eta, zehazkiago, irratia beste funtzio garrantzitsu bat informatzea eta irakatea da. Kasu honetan, Marixelak kontatzen digu, lurraldearen defentsaren atalean aipatu bezala, irratia bozgorailu izan dela komunitateentzat, Pacific Ring enpresa erraldoi kapitalista baten aurka borrokatu ahal izateko.

Enpresa horrek lurrak desjabetu nahi zituen bertan meategi erauzketa proiektu bat egiteko. Kasu horretan, komunikabideak eskola bihurtu ziren eta han hasi ziren komunikatzaileak prozesu horrek beren lurretan eta gorputzetan nola eragin zezakeen aztertzen: azaleko minbizia, giltzurrunetako gutxiegitasuna, arnasketa arazoak...

Trebatu egin ziren, eta, batez ere, etor zitekeen hondamendiaren berri eman zieten herritarrei, multinazional handi horrekin akordioak onartuz gero lurraldean eragingo zuena.

Irrati horiek eroskeria jaso zuten herritarrei ematen zitzaien informazioa aldatzeko, baina enpresak ez zuen lortu estortsioa egitea.

Irratiaren lanari esker, beren lurretatik kaleratu behar zituzten pertsonak meatze prozesuari ezetz esan ahal izan zioten, kausak ezagutuz eta arrazoi sendoekin. Marixelak komunikabideetan egindako ibilbideaz ere hitz egiten digu, bere historia ezagutaraziz kolektibitatearen garrantzia ulertu dezakegu, zure jatorria edozein izanda ere.

Bera Hondurasko errefuxiatu kanpamentu batean jaio zen, El Salvadorreko armadaren indarkeriatik ihesean. Hala ere, bere komunitatea jatorriagatik eta kulturagatik diskriminatua izan zen. 1992an itzuli zen El Salvadorrera, bake akordioak sinatu eta hiru hilabetera.

Solasaldia Gaztetxean, Ondarroa



Bizi esperientzia horretatik, komunitatea, batasuna, hezkuntza, informazioa eta antolaketa bizirauteko oinarrizkoak direla ikasi zuen.

Ezin dezake ulertu jakituria komunitatearen kontzepturik gabe, honek eskaini baitzion gaur egun duen heziketa osoa txikitatik. Bizimodu horrek irakatsi dio bere zeregina behar dutenak laguntzea, salatzea, informatzea eta babestea dela, eta irratia bidez egiten du berak.

Radio Victorian hasi zen lanean, 1993an sortutako irrati lokalean (Radio Venceremos irratiaren lanean oinarrituta). Marixelak, irratiko lankideekin batera, funtsezko bost ardatz lantzen ditu: giza eskubideen defentsa, herritarren parte hartzea, generoaren araberako desberdintasunak, memoria historikoaren erreskatea eta entzuleen parte hartze aktiboa.

Ardatz horiek salatzen, laguntzen eta bidegabekeriaren aurka borrokatzen direla dirak.

Aurrera ateratzen diren proiektu komunitarioei hedapena eman nahi dizkiete, irratien lan kolektiboari esker lagunduz.

“Komunitateen ahalduntzea herri komunikabideen bidez lor daiteke”.

Marixela Ramos





ZAINKETAK, SENDATZEAK ETA ARTEA

5. Zainketak, sendatzeak eta artea

Lurraldearen defendatzaileek urteak daramatzate ohartaraziz dute gure aisialdiko, militantziako, laneko eta bizitzako espazioen defentsan zaintzak eta autozainketak sartu behar direla.

Desparekotasunak, erbestean bizitzeak, indarkeriak, diskriminazioak, etengabeko mesfidantza, beldurrarekin bizitzea edota eguneroko tratu txarrak bizitzeak emakumeak eta gizarteak gaixotu egiten ditu.

Gainera, testuinguru horri iraganean bizi izandako gatazketatik sufritutako zauriak gehitzen zaizkionean, mina eta sufrimendua ondorio saihestezinak dira.

Gizarte mugimenduetan bertan, gure arteko harremanak ezartzeko bidegabea den hierarkia batzuen arabera dago antolatuta. Gune horiek, non seguruago sentitu beharko genukeen, botere harremanetan errotuta daude oraindik ere. Beraz, zainketak beharrezkoak dira.

Konfiantza handiko espazioetan, bertoko emakumeak eta migratuak gure sentimenduekin berriro bat egitea lortzen dugu, baita geure gorputzetan jasan ditugun indarkeriak adieraztea ere, eta gizarteak indarkeria horiek naturalizatzeak eta legitimatzeak dakarren mina adieraztea.

Beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen dugu espazio seguruak sortzea konfiantza ehuntzeko, konplizitate loturak eratzeko: iraganeko zauriak sendatu behar ditugu.



Beharrezkoa dugu gure mina kaleratzea, gure bizipenak berreskuratzea hauek behingoz eraldatzeko, eta gure memoria pertsonala eta kolektiboa berreraikitzea. Sendatzea ez da inoiz gure esperientziak baino gogorragoa izango.

Dalila Arguetak, adibidez, bere borroka historia eta bere komunitatearen lurraldearen defentsan izandako inplikazioak kontatu zizkigun.

Urarekin eta bere arbasoekin duen harremanaz aritu zen, ibaiarekin komunikatzeko duen modua, eta urak duen balioaz jabetzera gonbidatu zuen, sakratutzat hartzera, bizitza existitzea ahalbidetzen duen elementua baita.

Naturarekiko lotura horrek bere espiritualtasuna eta sendatze prozesua bizirik mantentzea ahalbidetzen du.

Topagune horietan aldarrikapenak, salaketak eta interpelazioak egiteko aukera izan genuen, baina baita barre egiteko aukera ere. Leku ederrak ezagutu genituen eta alaitasunetik ere konektatu ginen lurraldearekin.

Defendatzaileek jarduera horietan adierazi zuten moduan, artea tresna askatzaile paregabea izan da sendatze prozesuak aurrera eraman ahal izateko.

*“Emakume sendatzaileen lanari esker, gorputzarekin, artearekin eta sendaketarekin bat egin dezakegu, emakumeentzako lan emantzipatzaile eta askatzailea lortuz terapeuten lanari esker.”
Lucía Ixchú.*

Basoa Defendatzaileen Etxean antolatutako ekintzan, musika eta dantzarako espazio bat egin zen, non bertoko pertsonok, beste nazionalitate batzuetako pertsonak eta defendatzaileak elkar ulertu eta ezagutzeko gune bat izan genuen.

Ildo horretan jarraituz, gaur egun oztopoak hausteko aukera ematen diguten ekintza artistikoak daudela esan dezakegu. Feminismo komunitariotik eta mugimendu sozialetatik adierazpen artistikoak borroka estrategia gisa erabiltzearen aldeko apustua egiten da.

Mugimendu sozial guztiok indartu eta sustatu ditzakegu gure mobilizazio gaitasunak, bakarka zein taldean, artearen bidez.



Horretarako, lehenik onartu behar dugu ez dela soilik baliabide edo aukera bat, tresna magiko bat baizik: pentsamoldeak adierazi, transmititu, salatu, eragin eta eraldatzea lortzeko gai duena. Horregatik, garrantzitsua da duen potentzial politikotik aztertzea.

Emakume migratuek estereotipoak jasotzen dituzte etengabe, diskriminazioaren eta indarkeriaren kulturaren parte gisa. Beharrezkoa da gorputza, burua eta emozioa zaintzeko eta sendatzeko prozesuak lantzea, maila indibidualean eta kolektiboan, errealitatearekin hitz egiteko, beldurrak eta zailtasunak gainditzeko modu berriak aurkitzeko.

Performancea, antzerkia, dantza, kantua eta pintura dira, besteak beste, parte hartzaileek artearen bidez eraldatzeko beharrezkotzat adierazi zituzten praktikak.

Herri indigenen mundu-ikuskerak gizadiaren eta naturaren arteko harmonia bilatzea proposatzen du, eta zenbait espaziotan hori lortu dezakegu musikaren, artearen eta erritualen bidez.



“Borrokatzeko eskubidea dugu, baina ez sufrimendutik abiatuta, ez eta gure minaren kontura; ez gure kalte fisiko, mental eta emozionalaren kontura.”

Lucía Ixchíu.



“Sustraiak han dituenak”

(Mikel Laboa)

Nekez uzten du bere sorterrria

Sustraiak han dituenak.

Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak

Ez bada abaildu eta oholetan.

Ez du niniak begia uzten

Ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.

Nekez uzten du gesalak itsasoa

Ez hareharriak basamortua.

Ez du liliak udaberria uzten

Ez elurrak zuritasuna.

Bere sorterrria nekez uzten du

Sustraiak han dituenak



KREDITUAK:

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Karin Hernández

TESTUAK: Judit Piqué

ARGAZKIAK: Carlos Cano (Festivales Solidarios)

KOORDINATZAILEAK: Idily Mérida y Juana Canga (Lumaltik Herriak)



